

Irakasgaiaren izena	Kodea	Ikasturtea
HIZKUNTZA ETA KOMUNIKAZIO TREBETASUNAK II	141216	2024/2025
Titulazioa	Maila	Sehilekoa
LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA	2	1
Irakasgai mota	ECTS Kredituak	Hizkuntza
DERRIGORREZKOA	6	Euskara
Irakaslea(k)		
Roberto MIELGO MERINO rmielgo@bam.edu.es Jaione IBARRA ATUTXA jibarra@bam.edu.es		

Justifikazioa

Ikasgai honek bi modulu izango ditu, batean hizkuntza arloa garatuko da eta, bestean, ahozko literatura irakatsiko da.

Hizkuntza arloko moduluan irakasleek lanerako behar izango dituzten abilezia komunikatiboak landuko dira. Bertan gelatik kanpo egin behar duten lanerako behar izango dituzten testu generoak aukeratu dira eta horiek sortzeko hartu beharreko erabakiez eta prozedurez gain, genero horien erabileran ere trebatuko dira. Horrez gain, hizkuntzaren erabileraren inguruko hausnarketa egitea bideratuko da.

Ahozko literaturako moduluan ahozko literaturaren munduan sartuko ditu ikasleak; ahozko genero tradizionalen bidez, ikasleek hizkuntzaren erabiltzaile gisa eta hizkuntza irakasteko baliabide gisa arlo honek duen garrantziaz hausnartuko dute.

Aurrebaldintzak

Ez dago aurrebaldintzarik

Gaitasunak

Gaitasun orokorrak

G.O:1. IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA

2. Menderatze Maila. Idatziz erraztasunez komunikatzea, testuaren edukia eta euskarri grafikoak egituratuz, irakurlearen ulermena eta interesa errazteko luzera ertaineko idazkietan.

- Hainbat elementu erlazionatzen ditu (datuak, iritziak, etab.) ondorioak ateratzeko.
- Testuaren egiturak testua ulertzen laguntzen du.
- Edukiak transmititzeko hizkuntza egokia erabiltzen du.
- Edukiari eta irakurleari egokitutako taulak eta grafikoak ditu.

Berriazko gaitasunak

B.G.1. Komunikazio hizkuntza egokitasunez eta zuzentasunez erabili eskola eremuan, erakundeen arteko harremanean, eta zuzen eta egoki sortu arlo horretan erabiltzen diren testu generoak.

- Generoari dagokion egoera komunikatiboa kontuan izanik, testua zuzen eraikitzen du, egoera definitzen duten faktore garrantzitsuak kontuan izanik: hartzaile eta igorlearen izaera, helburu komunikatiboa, toki soziala, edukia eta beraren fokalizazioa.
- Generoari dagokion planifikazioa eraikitzen du.
- Planifikazioa argi adierazteko hizkuntza baliabide egokiak erabiltzen ditu.
- Gaiak eta komentarioak lotzen ditu, prozedura anaforiko desberdinak erabiliz.
- Enuntziatuak erlazionatzen ditu konektore egokiak erabiliz.
- Enuntziatuan bere jarrera erakusteko baliabideak egoki erabiltzen ditu.

B.G.2. Hizkuntzaren didaktikako irakaskuntza edukia, hau da, testuak, modu objektibo eta behagarrian deskribatu.

- Lantzen ari den testuaren funtzionamenduari buruzko hausnarketa metalinguistikoa egiten du.
- Ebaluaketa irizpideak eraiki eta erabiltzen ditu, sortutako testuak ebaluatzeko eta horren arabera birformulatzeko.

B.G.3. Ahozko literatura tradizionala eta bere generoak erabiltzea, euskararen erabilera linguistiko jatorrenak irakatsi eta ikasteko baliabide gisa, bai eta Lehen Hezkuntzako gelan lantzen diren arloetako baliabide gisa.

- Ahozko literaturako genero desberdinetan hizkuntza-erabilera aberatsak identifikatzen ditu.
- Ahozko literaturako testu-generoak identifikatzen ditu eta eskolan ikas-irakaskuntza egoerak planteatzeko aztertzen ditu.



Garapen Iraunkorrerako Helburuak eta Laudatzen diren Helburuen presentzia ikasgaiaren



4. GHI. Kalitatezko hezkuntza. LSHko Hezkuntza Ekologikoa.

Ikaskuntza-helburu kognitiboak

4. helburua zeharka ikusiko da Ahozko literatura modulan: Euskal ahozko literaturak kultura elementu moduan gure gizartean duen garrantziaz eta ezagutza horren transmisioaren garrantziaz ikasleak jabetzea

Ikaskuntza-helburu sozioemozionalak

4. helburua ukituko da: Hizkuntza arloan: norberaren lanerako hizkuntzen trebetasunen garrantziaz ohartarazteko balioko dio ikasgai honek ikasleari.

Edukiak

1. Ahozko eta idatzizko adierazmenean parte hartzen duten abilezia estrategikoak eta hizkuntzakoak:

- Testu espositibo eta argumentatiboen testuinguraketa
- Testu espositibo eta argumentatiboen planifikazioa
- Testu espositiboen eta argumentatiboen hizkuntza unitateak

2. Ahozko Literatura tradizionala

Ikas-irakaskuntza estrategiak

Ikasleen esperientziak azaleratzea: ikasgai honetan ikasleak egoera komunikatibo desberdinetan bizi izandako esperientziak azaleratuko ditu, irakasle-ikasle zein ikasleen arteko interakzioaren bidez; era berean, ikasgai lantzen diren egoera komunikatiboetako dagozkien testuak ekoitziko dituzte. (%10)

Egoera eta testuen behaketa eta hausnarketa: Egoera komunikatiboari dagozkion testu genero arketipoak behatuko dira galdetegien laguntzarekin eta behaketa horretatik ondorioak aterako dira. Horrez gainera, norberaren zein kideen produkzioak ere aztertu eta behatuko dituzte, bertan hartutako erabakiak justifikatuz. (%15)

Kontzeptualizazioa: Ikasgai honetan, abileziak lantzeko egingo diren jardura eta ariketak ondoren hausnarketa eta teorizazioa izango dute. Era berean testuen irakurketa eta behaketaren ondoren bateratze edo eztabaida saioak antolatuko dira, ikasleek egindako teorizazioaren egokitasunaz hitz egiteko, eta tarteka irakaslearen azalpenak izango dira. (%35)

Esperimentazio aktiboa: bereganatutako abilezia entrenatzeko ariketa mota desberdinak izango dira: produkzio partzialak edo osoak; hutsuneak betetzeko ariketak; oker dauden produkzioak zuzentzeko ariketak, etab. (%40)

Ebaluazioa

Trebetasunak modulua (%70)

- Idatzizko ekoizpenak (%50)
- Hausnarketa teorikoak (%50)

Ahozko Literaturako modulua (%30)

- Azterketa (%50)
- Banaka zein taldeka egindako lanak (%50)

Adimen artifizialaren erabilera:

Ez dago baimenduta adimen artifizialeko tresnak (AA) edo horien bidez sortutako edukiak erabiltzea.

Ezin da lan akademikorik kopiatu, plagiatu edo sortu Adimen Artifizialeko tresna baten bidez. Horrelako iruzurrezko praktikak egitea falta astuntzat hartuko da, Ikasleen Araudiaren 75. artikulua araber, (Deustuko Unibertsitateko Aldizkari Ofiziala, 81. zk., 2023ko ekaina).

Dokumentazioa

Trebetasunak modulua

- ARRIOLA, J., BILBAO L., IBARRA, J., IBARRA, G., LAUZIRIKA, A., MIELGO, R., OCERINJAUREGUI, J., OCIO, B. (2006) *Testugintza*, EUMBAM, Bilbao
- ARRIOLA, J., BILBAO L., IBARRA, J., IBARRA, G., LAUZIRIKA, A., MIELGO, R., OCERINJAUREGUI, J., OCIO, B. (2006) *Testugintza*, EUMBAM, Bilbao
- BASSOLS, M. (2003) *Modelos textuales teoría y práctica*, Octaedro ediciones.
- BRONCKART, J.P. (2004) *Actividad verbal, textos y discursos. Por un interaccionismo socio-discursivo*. Fundación infancia y aprendizaje, Madrid.
- CAMPS, A. (2003), *Secuencias didácticas para aprender a escribir*, Grao, Barcelona
- DOLZ, J & SCHNEWULY, B. (1997) "Géneros y progresión en expresión oral y escrita", *Textos*, 11, 77-98.
- FAYOL, M., (1985), *Le récit et sa construction*, Delachaux et Niestlé, París.
- IDIAZABAL, I. et al. (1990), *Hizkuntzaren psicopedagogía. Testu motak*. Labayru Ikastegia, Bilbao.
- LARRINGAN, L.M. (2009). "Testua, testu-generoa eta hizkuntzaren ikas/irakaskuntza", *Euskera*, 54, 2-1 zatia, 505-539 .
- LARRINGAN, Luis Mari (1998): "Koherentzia, kohesioa eta konexioa nozioen egoera", in I. Idiazabal, L. M. Larringan (Koor.), *Koherentzia, kohesioa eta konexioa: baliabideak hizkuntzaren azterketa eta irakaskuntza*, Vitoria-Gasteiz, Euskal Herriko Unibertsitatea, 11-46.

Ahozko literaturako modulua

- AREJITA, A., ETXEBARRIA, I. IBARRA, J., (1995), *Mendebaldeko Euskal Baladak*, Bilbao, Labayru Ikastegia, BBK
- AZKUE, R.M., (1989) *Euskalerrriaren Yakintza. I,II,III,IV*, Bilbao, Euskaltzaindia, Espasa Calpé.
- BARANDIARAN, J.M., (1973), *Obras Completas, I,II,III*, Bilbao, Biblioteca de la Gran Enciclopedia Vasca
- ETXEBARRIA, J.M., (2003), *Euskal urtea ohituraz betea*, Ibaizabal Argitaletxea.
- LABAYRU IKASTEGIA, (2011), *Zuztarretatik ahora. Orbelak airez aire*, Bilbao, Arakaldo, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Basauri, Etxebarri, Galdakao, Orozko, Ugao-Miraballes eta Zaratamoko udalak eta Labayru Ikastegia.
- LEKUONA, J.M. (1982), *Ahozko euskal literatura*, Donostia, Erein.
- PAIA, X. (2013), *Ahozko Euskal Literaturaren Antologia*, Donostia, Etxepare Euskal Institutua.
- Web-orri ezberdinak: Ahotsak.eus; urtesasoiak.com; herriondarea.eus; ahozkoliteratura.eus, ...